



ASTEASUKO UDALA  
(GIPUZKOA)

## **2018ko APIRILAREN 24an EGINIKO OHIKO UDAL BATZAREN AKTA**

2018ko apirilaren 24n, Asteasuko Udaletxeko Idazkaritzako bilera gelan, arratsaldeko 20.03 orduetan, Maria Pilar Legarra Cortajarena Alkate anderearen Lehendakaritzapean, behean aipatzen diren Zinegotziak bildu ziren:

ALKATEA: Maria Pilar Legarra Cortajarena (Asteasu Batuz, AB)

ZINEGOTZIAK: Jose Ramon Ayerza Sarasua (Asteasu Batuz, AB)  
Joseba Txapartegi Nieve (Asteasu Batuz, AB)  
Maria Pilar Iturbe Urdangarin (Asteasu Batuz, AB)  
Haritz Mugika Lasa (Asteasu Batuz, AB)  
Antonio Elicegui Orbegozo (Asteasu Batuz, AB)  
Luke Uribe-Etxebarria Apalategi (EAJ/PNV)

IDAZKARIA: Jon Gil Beltza.

Alkate andreak, goian adierazitako orduan, irekitzat ematen du Udal Osoko Bilkura:

### **GAI ZERREDA:**

#### **1. Aurreko Udalbatzarren aktak onartzea:**

- **2018.03.05ko Udalbatzarraren akta.**
- **2018.03.13ko Udalbatzarraren akta.**
- **2018.03.16ko Udalbatzarraren akta.**

#### **2. Azkeneko ohiko Udalbatzarretik igorritako Alkatetza ebazpenen berri eman:**

- **2018.urtekoak (47-90)**

#### **3. 2017ko Udal aurrekontuaren likidazioa: Udaleko Idazkari Kontu hartzailearen txostena komunikatzea.**

#### **4. 2017ko Ingerak:**

- **2017/01: brigadako errefortzuak.**
- **2017/02: AMC obra baimena.**
- **2017/03: brigadako errefortzuak.**
- **2017/04: diru-laguntzak.**
- **2017/05: diru-laguntzak.**



**ASTEASUKO UDALA**  
(GIPUZKOA)

5. **2015eko Aurrekontu Orokorren Kontu Orokorra.**
6. **2016ko Aurrekontu Orokorren Kontu Orokorra**
7. **Mozioak:**
  - **Asunzion klinikako (Inviza) enpresa-batzordeak aurkeztutakoa.**
8. **Erregu eta galderak.**

.../...

**LEHENENGO PUNTUA.**

**Aurreko Udalbatzarren aktak onartzea:**

- **2018.03.05ko Udalbatzarraren akta.**
- **2018.03.13ko Udalbatzarraren akta.**
- **2018.03.16ko Udalbatzarraren akta.**

Proposamena bozketara jarri da, ondorengo emaitza eman delarik:

Aldeko botuak: 7 (Legarra, Ayerza, Txapartegi, Iturbe, Mugika, Elicegui, Uribe-Etxebarria)

Kontrako botuak: 0

Abstentzioak: 0


Beraz, bozketaren emaitza ikusirik Udalbatzak, bertaratutako zinegotzien ahobatezko onespenerekin, aipatu akta onartu du.

**BIGARREN PUNTUA.**

**Azkeneko ohiko Udalbatzarretik igorritako Alkatetza ebazpenen berri eman:**

- **2018.urtekoak (47-90)**

Udalbatzarra jakinaren gainean geratu da.



ASTEASUKO UDALA  
(GIPUZKOA)

**HIRUGARREN PUNTUA**

**2017ko Udal aurrekontuaren likidazioa: Udaleko Idazkari Kontu hartzailearen txostena komunikatzea**

Martxoaren 15eko 59/2018 Alkatetza Dekretuaren bidez, Udal honen 2017ko aurrekontuaren likidazioa onartu da. Hona hemen horren laburpena:

**DIRUZAINZA GERAKINA**

1.- Diruzaintzako izakin likidoak, 2017-12-31n:		974.749,39
2.- Kobratu gabeko saldoak, 2017-12-31n:		36.422,86
Aurrekontuko zordunak :	34.956,12	
Aurrekontuz kanpoko zordunak:	1.466,74	
- Aplikatu gabeko kobrantzak:	0,00	
3.- Ordaindu gabeko saldoak, 2017-12-31n:		232.876,91
Gastuen aurrekontuko hartzekodunak:	92.790,73	
Aurrekontuz kanpoko hartzekodunak:	140.086,18	
- Aplikatu gabeko ordainketak:	0,00	
4.- Diruzaintzako gerakina guztira (1+2+3):		778.295,34
5.- Saldo kobragaitzak:		15.884,48
6.- Gehiegizko finantzaketa lotua:		0,00
7.- Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina (4-5-6):		762.410,86

**AURREKONTUKO EMAITZA**

1.- Aurtengo aurrekontuko eragiketen emaitza:	200.692,16
2.- Aurreko ekitaldietan likidatutako aurrekontuetako eragiketen emaitza:	-474,88
3.- Doiketak, diruzaintzako gerakinaren bidez finantzatutako	105.975,72



ASTEASUKO UDALA  
(GIPUZKOA)

obligazioengatik:

4.- Doiketak, finantzaketa lotua duten gastuen desbiderapenengatik:	0,00
5.- Aurrekontu emaitza (1+2+3+4):	306.193,00

KREDITU GERAKINAK

1.- Txerta daitezkeen kreditu gerakinak:	240.430,72
2.- Txertatu ezin diren kreditu gerakinak:	187.032,85
3.- Kreditu gerakinak, guztira (1+2):	427.463,57

Espediente horretan, udaleko bitarteko idazkari kontu hartzaileak eginiko txostena jaso da; besteren artean, honela dio:

Toki entitate honek ez ditu betetzen aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren arloetan 2017. urterako ezarritako helburuak edota gastu araua. Beraz, toki entitate hau behartuta dago plan ekonomiko finantzarioa onartzera. Aipatutako planak ahalbideratu behar du urteko ekitaldian eta hurrengoan defizitaren helburua eta gastu araua betetzea, eta 2020an zor bizia sarrera arrunten %70 edo txikiagoa izatea. Plan hori Udalbatzari aurkeztu beharko zaio hilabeteko epean, gehiena jota, likidazioaren espedientea onartzen denetik kontaktzen hasita; bi hilabeteko epean onartu beharko da, gehiena jota, aurkezten denetik kontaktzen hasita; eta martxan jarri beharko da hiru hilabeteko epean, gehiena jota, likidazioaren espedientea onartzen denetik kontaktzen hasita.

Hala eta guztiz ere, Finantza tutoretzaren eskumena garatzeko Gipuzkoako toki entitateen aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren alorretako (2016/11/15eko GAO) 3. erregelarekin bat, plan finantzarioaren ordezkari zuzendutako komunikazioaren bidez ordezkaturiko da, izan ere, likidazio honetan egiaztatu ahal izan da betetzen direla 2013/1 Foru Arauaren 5. artikuluko 4. paragrafoko hiru baldintzak: diruzaintzako gerakina positiboa, zor publikoaren helburua, eta defizit helburua.

Ogasuna, Kontu Bereziak eta Administrazio Batzordeak aurretik irizpena eman du.

Proposamena bozketara jarri da, ondorengo emaitza eman delarik:

Aldeko botuak: 7 (Legarra, Ayerza, Txapartegi, Iturbe, Mugika, Elicegui, Uribe-Etxebarria)

Kontrako botuak: 0



ASTEASUKO UDALA  
(GIPUZKOA)

Abstentzioak: 0

Beraz, bozketaren emaitza ikusirik Udalbatzak, bertaratutako kideen aho batez,

ERABAKI DU

Lehena. Udal honen 2017ko aurrekontuaren likidazio espedientean, adieraztea udaleko bitarteko idazkari kontu hartzaileak eginiko txostena komunikatua izan dela.

**LAUGARREN PUNTUA**

**2017ko Ingerak:**

- **2017/01: brigadako errefortzuak.**
- **2017/02: AMC obra baimena.**
- **2017/03: brigadako errefortzuak.**
- **2017/04: diru-laguntzak.**
- **2017/05: diru-laguntzak.**

Martxoaren 15eko 59/2018 Alkatetza Dekretuaren bidez, Udal honen 2017ko aurrekontuaren likidazioa onartu da; horrekin batera, urte horretan Udaleko bitarteko idazkari kontu hartzaileak eginiko lege-ingera (erreparoen/oharrak) jakinarazi behar zaizkio Udalbatzari eta, ondoren, Euskadiko Kontu Auzitegiari.


Hauek dira:

2017/01: brigadako errefortzuak.  
2017/02: AMC obra baimena.  
2017/03: brigadako errefortzuak.  
2017/04: diru-laguntzak.  
2017/05: diru-laguntzak.

Ogasuna, Kontu Bereziak eta Administrazio Batzordeak aurretik irizpena eman du.

Idazkariak hitza hartu du: ingera horiek likidazioarekin batera udalbatzarrera ekarri dira, legez egin behar den moduan.

Alkate andreak hitza hartu du: eginiko erreparoen aurrean, berari dagozkion justifikazioak egin zituen.



ASTEASUKO UDALA  
(GIPUZKOA)

Uribe-Etxebarria jaunak hitza hartu du: aurreko ogasuneko batzordean eskatu zuen ingera horiek beste epe motzagoan ezagutzea, hau da, urte oso bat pasa aurretik, hala, ezagutu eta iritzia eman ahal izateko.

Idazkariak hitza hartu du: esan du ados dagoela eginiko ekarpenarekin, eta ogasuneko batzordeetara eramango dituela egin bezain laster.

Proposamena bozketara jarri da, ondorengo emaitza eman delarik:

Aldeko botuak: 7 (Legarra, Ayerza, Txapartegi, Iturbe, Mugika, Elicegui, Uribe-Etxebarria)

Kontrako botuak: 0

Abstentzioak: 0

Beraz, bozketaren emaitza ikusirik Udalbatzak, bertaratutako kideen aho batez,

#### ERABAKI DU

Lehena. Udal honen 2017ko aurrekontuaren likidazioa onartu eta gero, urte horretan Udaleko bitarteko idazkari kontu hartzaileak eginiko lege-ingerak (erreparoak/oharrak) Udalbatzari komunikatuak izan direla eta, ondoren, Euskadiko Kontu Auzitegiari bidaltzea.

Hauek dira:


- 2017/01: brigadako errefortzuak.
- 2017/02: AMC obra baimena.
- 2017/03: brigadako errefortzuak.
- 2017/04: diru-laguntzak.
- 2017/05: diru-laguntzak.

#### **BOSGARREN PUNTUA**

##### **2015eko Aurrekontu Orokorren Kontu Orokorra.**

Ikusirik 2015.ekitaldiko kontu orokorra prestatua dagoela, besteak beste ondorengo osagaiak izango dituelarik:

- Egoera balantzea
- Galera eta irabazien kontua
- Ekitaldiaren txostena



ASTEASUKO UDALA  
(GIPUZKOA)

- Aurrekontuaren likidazio egoera
- Urteko egoera-orrien eranskinak

Erakunde lokaletako aurrekontuak arautzen dituen abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 63. Artikuluak dionaren arabera, jendaurrean jarri beharko da Kontu orokorra hamabost laneguneko epean interesatuek galdapenak, erreparoa eta iradokizunak aurkez ditzaten. Ondoren Udal Batzarrera eramango delarik bere onespenerako.

Ikusirik mahai gainean dauden Kontu Orokorrak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko azaroaren 16ko 95/93 Foru Dekretuak, Udal Entitateen Kontabilitate Instrukzio erraztuak onesten duenarekin bat datozela.

Ikusirik Ogasuna, Kontu Bereziak eta Administrazio batzordeak aldeko txostena eman zuela.

Ikusirik iragarkia 2018/02/27ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zela.

Ikusirik jende aurreko epean ez direla erreklamazioak, erreparoa edo oharrak aurkeztu.

Ogasuna, Kontu Bereziak eta Administrazio Batzordeak aurretik irizpena eman du.

Proposamena bozketara jarri da, ondorengo emaitza eman delarik:

Aldeko botuak: 7 (Legarra, Ayerza, Txapartegi, Iturbe, Mugika, Elicegui, Uribe-Etxebarria)

Kontrako botuak: 0

Abstentzioak: 0

Beraz, bozketaren emaitza ikusirik Udalbatzak, bertaratutako kideen aho batez,

## ERABAKI DU

LEHENA: 2015. urteko Kontu Orokorra onartzea.

BIGARRENA: 2015ko aurrekontuaren Kontu Orokorra Herri-Kontuen Euskal Epaitegiari bidaltzea, haren arautegian berariaz ezarritakoaren arabera.

## **SEIGARREN PUNTUA**

### **2016ko Aurrekontu Orokorraren Kontu Orokorra**



ASTEASUKO UDALA  
(GIPUZKOA)

Ikusirik 2016.ekitaldiko kontu orokorra prestatua dagoela, besteak beste ondorengo osagaiak izango dituelarik:

- Egoera balantzea
- Galera eta irabazien kontua
- Ekitaldiaren txostena
- Aurrekontuaren likidazio egoera
- Urteko egoera-orrien eranskinak

Erakunde lokaletako aurrekontuak arautzen dituen abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 63. Artikuluak dionaren arabera, jendaurrean jarri beharko da Kontu orokorra hamabost laneguneko epean interesatuek galdapenak, erreparoa eta iradokizunak aurkez ditzaten. Ondoren Udal Batzarrera eramango delarik bere onespenerako.

Ikusirik mahai gainean dauden Kontu Orokorrak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko azaroaren 16ko 95/93 Foru Dekretuak, Udal Entitateen Kontabilitate Instrukzio erraztuak onesten duenarekin bat datozela.

Ikusirik Ogasuna, Kontu Bereziak eta Administrazio batzordeak aldeko txostena eman zuela.

Ikusirik iragarkia 2018/02/27ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zela.

Ikusirik jende aurreko epean ez direla erreklamazioak, erreparoa edo oharrak aurkeztu.

Ogasuna, Kontu Bereziak eta Administrazio Batzordeak aurretik irizpena eman du.

Proposamena bozketara jarri da, ondorengo emaitza eman delarik:

Aldeko botuak: 7 (Legarra, Ayerza, Txapartegi, Iturbe, Mugika, Elicegui, Uribe-Etxebarria)

Kontrako botuak: 0

Abstentzioak: 0

Beraz, bozketaren emaitza ikusirik Udalbatzak, bertaratutako kideen aho batez,

**ERABAKI DU**

LEHENA: 2016. urteko Kontu Orokorra onartzea.

BIGARRENA: 2016ko aurrekontuaren Kontu Orokorra Herri-Kontuen Euskal Epaitegiari bidaltzea, haren arategian berariaz ezarritakoaren arabera.





ASTEASUKO UDALA  
(GIPUZKOA)

## **ZAZPIGARREN PUNTUA**

### **Moziok:**

- **Asunzion klinikako (Inviza) enpresa-batzordeak aurkeztutakoa.**

ELA eta LABeko autetsiez osatutak Invizako langile batzordearen PROPOSAMENA

UDAL BAKOITZEKO UDALBATZARI AURKEZTEKO MOZIOA ALDERDI POLITIKOAK DEITUZ, AHALIK ETA BIZKORREN ONARTU DEZATEN.

### MOZIOA

Asunzion klinikako (Inviza) langile batzordeak ESKATZEN DU MOZIO hau azter dadila .....-ko Udalaren Udalbatzan eta deitzen ditugu Udal taldeak onartu dezatela.

Asunzion klinikak eskualdeko hospital publiko lanak egiten ditu E.S.I. aren barruan. Diru publikotik 20 milioi euroko diru laguntza jasotzen duen klinika pribatua da , eskualdeari osasun arreta eman asmoz.

2013 urtetik hitzarmen bat negoziatzen saitzen ari gara, baina enpresaren jarrera, naiz eta osasun sailetik negoziata seguru izan, eta beraien nahia dela akordiora iristea esan, bere jarrerarekin erakutsi du hori ez dela horrela.

Guk lan publikoa egiten dugunez, gure lan baldintzak osakidetzarekin berdinduak izan behar dutela uste dugu.

Ezin dugu ahaztu hospitale publikorik ez duen EAEko eskualde bakarra garela. Eta gure baldintzak prekarioak diren ainean eskeintzen den arretak ezin du kalitatezkoa izan.

Hau guztia dela eta, BORONDATE POLITIKO BATEZ ari garelauste dugunez, UDAL

### HONI ESKATZEN DIOGU:

- 1.- Hitzarmen duin bat sina dezatela eska diezaiola enpresari.
- 2.- Herritarron diruaren jarraipen zehatz bat egin dadila, kalitatezko osasun zerbitzu bat, eta lan baldintza egokiak berretsiko dituen.



ASTEASUKO UDALA  
(GIPUZKOA)

3.- Berretsi dadila Tolosaldean kalitatezko osasun publikoa, doakoa, unibertsala eta gainontzeko eskualdeetako berdina izatea.

4.-Udalak eska dezala Osasun sailarekin dagoen hitzarmena bete dadila; bereziki azpiegitura, langileria eta 3.2.1. - 3.2.2.- 3.2.4.- 3.2.5.- 3.3.2.- 3.3.4. puntuetan.

5.- Bidal diezazkiela Udal honek onartu dituen erabakiak Gasteizko gobernari. Sinatzailea:

Idazkariak hitza hartu du: aurkeztutako mozioaren edukia udalaren eskumenetik at dago, izan ere, lan-harreman bati buruz ari da.

Proposamena bozketara jarri da, ondorengo emaitza eman delarik:

Aldeko botuak: 6 (Legarra, Ayerza, Txapartegi, Iturbe, Mugika, Elicegui)

Kontrako botuak: 0

Abstentzioak: 1 (Uribe-Etxebarria)

Uribe-Etxebarria jaunak hitza hartu du: orokorrean, mozioaren testuarekin bat dator; nolana ere, ez dago guztiz ados erabiliko literaturarekin eta, adibidez, lehenengo puntuan, beste modu batean idatzia egon beharko litzateke. Hori dela eta, abstentzio botoa eman du.

Beraz, bozketaren emaitza ikusirik Udalbatzak, bertaratutako kideen gehiengoz,

**ERABAKI DU**

Lehena. Jasotako adierazpena onartzea.

Bigarrena. Erabaki honen berri ematea interesdunei.

### **ZORTZIGARREN PUNTUA**

#### **Erregu eta galderak.**

Ez dira aurkeztu.

Eta beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat ematen du gaueko 20.21 orduak direnean, nik Idazkariak, bertan jasotakoaren akta hau luzatzen dudalarik.



ASTEASUKO UDALA  
(GIPUZKOA)

Asteasun, 2018ko apirilaren 24an.

Alkatea

Bitarteko Idazkari-Kontuhartzailea